

## Karlos Santamariari omenalditxo gisa

Joxe Azurmendi

Karlos Santamariarekin hainbat eratan, mailatan eta barrutitan dagoke zordun Euskal Herria, euskal kultura: euskara bera, pentsamendua, zientzia matematikoak, irakaskuntza, ikastolak, Unibertsitatea, Eliza, euskal prentsa. Gu geu.

Orain, gu geu: *Jakin*.

"Aire berriak" pentsabideetan, esaten den legez, orain inork nekez imagina lezakeen tamainan, Karlos Santamariak ekarri zituen herri honetara gerra ostean, *Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián* zirelako bidez bereziki (1947-1959). Horiei buruz ez naiz mintzatuko: Santamariak berak zenbait azalpentxo egin izan du eta badu, gainera, informe historiko bat ere berak egin, noizpait ikertzen utzi zidana, bere artxiboan, frantsesez. Bakarrik, hauxe: "Asistí por primera vez, idatzi du eskerronezko aitortza gisa J.L. Aranguren-ek bere pentsamenduaren traiektoria esplikatzeke (falangista izana bait da), en el año 1949, a las Conversaciones Católicas Internacio-

nales de San Sebastián, empresa llevada a cabo por Carlos Santamaría y cuya importancia para el catolicismo español ha sido enorme. Piénsese que hasta entonces España había vivido víctima de una nueva *tibetización*. (Orain, agian, *albanización* edo esango litzateke: isolamendu totala eta jelaketa).

Don José María Arizmendiarrrieta-ren artxiboan, Donostiako Elkarrizketa horietako hainbat eta hainbat material aurkitu nuen. Ez da dudarik, haren informazioan eta formazioan ere zerikusirik izan zutela. Beraz, kooperatibismo arizmenditarren inspirazioan (pertsonalista hori ere). Horiek denak, aztertzeko gaiak lirateke.

Baina, besteenak beste, *Jakin*-en historian eta traiektorian ere maisu gidaria izan dugu Karlos Santamaria.

## 25 urte Jakin-en

Momentu txar batean, esan liteke, *Jakin* Karlos Santamariak "salbatu" zuela (1967). Historia hori kontatua dago *Jakin 25 urte euskal kulturaren zenbakian* (21, 1981, 96 eta 173), xehekiegi kontatua ez egon arren, sentikorasan zaharrak alferrrik ez mintzeko.

Salbatu bazuen, hein batean gidatu ere berak egin behar izan zuen aldizkari hau, bere egitate pertsonalez nahiz aholkuz, hurrengo urteetan. Urgentziazko erredakzioaren buruzagi bera bilakatuz aurrenik Donostian, aldizkaria Arantzazu-tik atera zenean. Zuzendaritzako triunbiratoan mentore eta biderakusle aktibo izanez, gero, Joan Mari Torrealdei eta Rikardo Arregi kuzendari eta lankide-ikasle gazteekin, Zuzendaritza honekin berrabiatu bait da *Jakin*, sortu eta hamar urtera, krisi gaizto baten ondotik. Historiak eta adiskidetasunak elkaturik, horrela, gaur arte jarraitu du Karlos Santamariak beti aldizkariaren lagun: sustatzaile eta orientatzaile, inspiratzaile.

Esan nahi da, berak orriotan idatzi duenak baino askoz gehiagok lotzen duela aldizkari hau Karlos Santamariarekin aspaldian. Baina idazle kolaboratzaile ere izan dugu. Zilegi izan

bekigu orain, kolaboratzaileari omenalditxo antzera, haren 10 artikulua *Jakin*-en argitaratu gogoratzea (gehiago badu, adbz. "Algebra berria", 29, 1968, 30-40; baina hemen, nolabait esan, artikulua "ideologikoetara" mugatuko gara), piska bat haren pentsamenduaz nahi dugunez apunte batzuk zirriborratzen hasi.

## Erlijio askatasuna

"Gaurko Arazo ederra", Santamariaren aurreneko artikulua *Jakin*-en, oraintxe 25 urte duela (1965), erlijio askatasunaz izan da. Karlosen gai kuttun-kuttun bat, haren pentsamolde originalean, alde batetik askatasun pertsonalaren eta giza eskubideen arazoari, bestetik ekumenismoaren bere interes biziari, loturik dagoena; baina, hirugarrenik, Elizaren historikotasunari ere bai, honela egiaren kontzeptu estatiko absolutista tradizionala arbuiauz, erlijioan bertan ere. "Eliza bere muiñean beti berbera dala ere, Edestiko leku-denbora igeskorrean barrena bizi da ta inguruntako elementoak artu ta erabilli bear".

Ulertu egin behar da, orduko "sinismen libertadea"ren burruka zer zen. Interesgarria honez gero ez bait da, erlijio askatasuna defendatu izana (ebidentzia bat bihurtua daukagu), baina zein arrazoitatik defendatu zuen. Egia erlijioso zein politiko segurua desafiatzea zen hori hemengo Eliza dogmatiko itxian eta Estatu totalitario itsuan. "Hablar de libertad religiosa, por ejemplo, era prácticamente una herejía", deklaratu du berak urteak geroago interbista batean (*Herria 2000 Eliza* 6, 1978, 15).

## Inperialismoaren arazoa

Bigarren lekuan, Che Guevara-ren heriotzaren inguruko meditazioa gogora genezake (27/28, 1967, 11-15), hori ere Karlosen betiko kezken ildotik. Eta, hasteko, ikus dezagun hemen ere herrero, orduan Che Guevara orañdik ez zela heroi eta martiri diskusiogabea, baizik eta Hego Amerikan bertan bede-

ren "bertako eskubikoak eta ezkertiarrek batera" berdin kondemnatzen zutena pasionatuki. Eskuindarrentzat, ez dago esan beharrik zer izango zen. Eta Alderdi Komunista ofizialentzat (Bolibia, Venezuela), abenturista hutsa zen eta subjektibista antizientifikoa. Borondarista eroa. On baina kalte gehiago egiten ziona iraultzari.

Karlos Santamariak bere betiko jarrera baketiarretik epaitzen du: "Nik ez det uste kañoiak ta bonbak herrien zuzentasuna ta zorientasuna ekarriko dituztenik".

Efikaziaren kategorietan (aparte norberak eduki lezakeen aukera moral edo erlijioso), pentsa liteke, Kuba-ren "abenturak", Hego Amerikaren iraultzan untziratur, ezin ezer handirik lortu ahal izatea USAko inperialismoaren aurka. Orduan ere, alabaina, Kuba-ren kuraia eta adorea mires eta goresgarri ginituzke. Izpiritu zirtzilkeria litzateke, errealismo komodo baten izenean, kemen eta sakrifizio zailok, exitorik ezin izan omen lezaketelako, gutxiestea. "Gizatasun saietsetik, politika alde batera, badu Che Guevera-k zerbait merezi, bere adiskideen alde ta ona zeritzaion kausaren alde bizia eman badu, baita gogoz eman ere. Bolivia aldera joan zanean, bazekielako zer sasi-tartean sartzen zan ta nola bukatu behar zuen bere abenturak. Honelako konportamendu ta bizikerari begi onez begiratu behar zaiola ez du inork ukatuko".

Beraz, Guevara-ren proiektu armatuak huts egin du. Baina porrot egiten ari dira, orobat, beste proiektu bakezko ("Alianza para el progreso") zein demokratiko erreformista guztiak, Hego Amerikari irtenbideren bat asmatzeko ("Reformismoaz, *konformismo* izena hobe izan zitekean"). Zer egin? Lenin-en galdera larria horixe izan zela gogoratzen digu.

Galdera hori geure egoerara alda genezake, sarkorkiango baitaratzeko. Eman dezagun, onartzen dugula "euskal arazoa" deritzona, eta ez dugula onartzen indargintza, horren soluziorako. Zer egin? Soluzio demokratiko batean ere ez da sinesten (kapitulazioa ez den "soluzio demokratiko" batean): soluziorik ez dago bakez eta halere ez da onartzen (kondenatu ere ez da egiten!) indargintza.

(Baezpadan abisatu nahi dut, Euskal Herriko arazoaz badi-tuela Santamariak espreski egindako gogoetak, hemen orain aintzat hartzen ez ditudanak).

“Nik ez det uste —errepikatzen du halere— ebanjelioaren erantzuna fusilla artu ta mendira ateratzea izan ditekaneanik”. Bestalde, “ba-an, ziur nago, inperialismo ekonomikoaren gorputzilla igarotzen ikusteko elizako atarian eseritzea ebanjelioko postura ez dala”. Orduan, ezin bada bake bidez eta nahi ez bada indargintzaz (ebangelioagatik!!!), zer bide geratzen da? Batere ez da biderik geratzen, Santamaria zuzen irakurtzen badut, oraingo kontzientzi mailan. Historian tragediaren errealitatea aitortu egin behar da.

Artikulua iraultzaren teologia bat eskatuz eta inpotentziaz “kristauen bidea, nundik?”, moralistei eta teologoei galdeginez, isiltzen zen, guztiz etsita.

Ez guzti-guztiz etsita, agian. Artikulu honetan, biolentzia eta biolentziaren presentzia historian, aitortua dago. Ikusia eta ezagutua, hobeto. Biolentzia ez da izpiritualismo edo moralismo faltsu batez gaitzerizteko, ez onerizteko, arloa. Errealitate bat da, historian, gizartean. Lehenengoa errealitate hori den bezala ezagutzea eta aitortzea da hain zuzen, “Biolentzia, gogortasuna, beharrezkoa da, bai, gure mundua zuzentzeko. Baiñan zer nolako gogortasuna? Hori da ta hori izango da, gaur eta biar, problema izugarria. Batez ere ebanjelioko politika edo kristau-politika baterako”. Errealismo (politiko eta kristau) honek, etsipenera gakartzala, ordea, esan dugu, Che Guevara-ren heriotzaren aurrean. Ez bakez eta ez armaz dago zer eginik - *orain!*

Esperantza bakarra, beste kontzientzia baten orduan geratzen da. Orain ezin dena, izan liteke posible orduan. Eta kontzientzia hura biharko posible egitean, egon liteke gaur, hain zuzen, Che Guevara-ren balio positiboena. Frakasuaren exitoa, ezkutu-ezkutuan eta luzarora begira:

“Nik galdera bat egingo nieke nere irakurleei, kristau diranei batez ere.

Zer esaten dio gaur kristau konzienziari Che Guevara-ren heriotza gertaera negargarri honek? Zer esaten diote kristau kon-

zienziari Camilo Torres apaiz zanaren eta beste gerrillero kristauen eta ez kristauen heriotzak? Reboluzionarioak eta bandidoak zirela esanaz kitatuko al gera kristauok?

Horrelako galderak ez dizkiet egingo, jakiña, kristau aburgesatu ta ondo instalatueri, ezta ere nere gaztearoan "bien pensant" deitzen zitzaieni.

Bañan ba daude, Jainkoari esker, bere kristautasuna gaurko egunaren arauaz bizi nahi duten egiazko kristauak.

Guevara-ren lanak, beste ekarririk izan ez badu ere, kristauok Amerika latinaren nahigabe ta miseriaz konzienzia hartu dezagun balio izan balu, bulartsu horren odola etxan alperrik ixuriko".

Lerro horiek irakurri ahala, batek ezin du ez gogoratu Ellakuria: eta hain fede diferentetako jendeen odol isurketon ekumenismo estrainoak hunkitzen du.

## Egurrezko gurutzeak ala haragizkoak

Esantsua bait dago, 1968 hori sekulako harramantza urtea izan zela, oraindik ahaztuta ez da egongo. Istilu bat haxe izan omen zen urte horretan: Madrilgo Unibertsitatean, iskanbila baten erdian, norbaitek gurutze bat leihotik behera jaurtiki zuela. Pentsa eskandaloa Espainia katolikoan.

Handik egun batzuetara, beste eskandalo handiago bat. Don Francisco Pérez batek, sermoian, gurutzea leihotik botatzea baino okerrago, zuzengabe langile bat botatzea zela fabrikatik, famili-guraso bat ogibide gabe utzirik. Entzule batzuk oihuka altxatzen dira, protestatzen dute (zer sustoa eramane ote zuen apez gizajoak!), atera egiten dira elizatik. Pentsa eskandaloa, zer negozioa prentsa-modu batentzat.

Santamariak behin baino gehiagotan esana du, ez dela "taketadazko elkarrizketen" eta arrazoiketen zalea. Adeitsu eta gurbil beti, irribarre izpi batekin. Baina gogoeta haxe egin zuen eskandaluon aurrean: "Apaizaren galdera ikaragarria da: Kristoren iduririk egokiena eta egiazkoena, nun dago? Zur

puxka batean, naiz gurutze tankera izan, ala gure anaia dan gizonarengan? Gezurra badirudi ere, kristau erlijioaren mami guztia galdera ontan sarturik dago" ("Zalaparta Elizan eta erlijioaren konzetua": 29, 1968, 43).

Neure komentariotxo bat egiteko, probetxatuko du orain parada. Problema gogor gehienak, forma gogorrekin agertzen dira. Problema gogor batek zerbaitegatik molestatzen digunean, formaren gogorkeria eta desegokitasuna indignaturik zapuztea izaten da, problemaren mamiko gogortasunari disimuloz itzuri egiteko modu korriente bat.

Santamaria, ordea, onestasan eta garbitasun intelektualean izan bait da beti maisu!

## Berriro biolentzia gora eta behera

Beste desonestasun intelektual erraz bezain arrunt bat hauxe izan liteke, adibidez: biolentzia razionalki "kondenatzeko" dauden problemak eta zailtasunak aipatzen ditu batek, eta biolentziaren justifikazioan ari dela, ulertzen dio besteak (edo nahi izaten dio ulertu).

68 aldera biolentziaren arazoa behin baino gehiagotan planteatu digute Karlos Santamariak, Rikardo Arregik, M.M. Oterok, etab. Santamariak, partikulazkiago, hainbat aldiz eta hainbat moldez jorratu du gaia, beti bere erabaki ebangeliko baketiarretik begira. Etorriko gara beste noizpait berriro garrantzizko puntu honetara Santamariaren pentsamenduan. Orain "Eliza ta biolentzia" *Jakin*-eko (30, 1968, 43) nota laburra gogoemango dugu.

Berriro biolentziaren errealitate orokorraren konstataziotik hasten gara: indargintza hortxe dagoena da gizartean zein historian. (Inor engainatzen ez ibiltzeko lehen urratsa, norbere burua engainatuz ez hasatea da). Okerrago: "Gure gizarteetan biolentzirik handiena ta astunena, herriari goitik behera egiten zaiona izan ohi da gehienetan. Alegia, zuzengabeko legeak, estuktura okerrak eta ahal-gehiegikeriak eragiten diotena. Opre-sioa eta bildurtaraztea edo intimidazioa, esate baterako, izuga-

rrizko gogorkeriak dira, berauek ixuritako odola askotan ikusten ez bada ere”.

Peguy-ren esaldi batez baliatuz, desordenuaren biolentzia baino bildurgarriagoa eta txarragoa dela “ordenu”arena, esango du. Beharbada Goethe-ri osteratzen zaio horrela. (Voltaire-k uste dut esaten zuela, kriminal guztien injustiziak baino, injustizia okerrenak, Justiziarenak izaten zirela, edo antzeko zerbait). Santamariak: “Kaleetako biolentzia ez da txarrena, baizik politika ta sozial egiturak jende apal ta pobreak, edo menpeko arrazari, egiten dietena. Hau ikusi, ez da garbi ikusten, edo hobeto esateko, askok ez dute ikusi nahi. Menpekoek egindako gogorkeria besterik ez dute ikusi nahi”.

Hori dena ez zegoen, ez dakit zein gizarte moldez edo sistema suertez idatzia. Mendebalde santu honetakoxe gizarte ez esana dago. Baina 68an hori dena gogoeta sakon serioa, justiziazkoa, progresista, zinez kristaua eta arrazoizkoa, zentzuduna, ikusten zuen jende asko, orain goian trepatuta edo arrimatu-ta bera dago “egituretan”, eta bitarte labur honetan bere begietan zeharo galdu ditu “herriari goitik behera egiten zaion biolentzia” ikusteko zeukan ahalmen guztia...

Hain zuzen metamorfosi moral horien azter-salaketa bat oraintsu J.L. Aranguren-ek egin du. Guretzat, beste bat, ego-kiagoa, Santamariak egin ahal izango liguke.

## **Biolentzia eta Eliza**

Santamaria pazifista deklaratu da. Baina arras uko egiten dio “biolentzia guztien” kondena erosoari: intelektualki soluzio errazegia da hori (desonestoa, hain zuzen) eta, moralki zein politikoki, “jokaera honek *status quo* dalakoaren alde jokutzen du, pobreak eta mirabeak ahaldunen eskuetan jartzen ditu-ta”.

Santamaria pazifista kristaua da. Horregatik ere uko egiten dio, halaber, kristautasunaren izenean “edozein biolentzia” berdin kondenatzeari: “ez da egia, Elizak beti ta nunai gogortasuna kondenatzen duanik”. Biolentzia “guziak” gaitzestea, be-



deinkatzea bait da finean biolentzia. Eta "gogorkeri batetik iges egiten saiatzean, beste biolentzi handiago batean" erortzea.

Biolentzia guztiak kondenatzen direla, esatea, indezenteki gezurra esatea da, batez ere, eta zuzengabe egitea. Biolentziaren monopolio ezkutua beren ukabiletan dutenak, ahaldunak, Elizaren hitzaz baliatuko dira: "Zuek, menpekuok, geldi zaiztezte, Elizak biolentzi guztiak gaiztoak direla diolako".

Helburu zilegizko bat lortzeko indargintza onartzen ez duen Elizak, egin behar duena, ez da, indargintza kondenatu, baizik efikazki eraldatu edo eraldatzen saiatu gizartea, helburu hura lortzea, orain ez bada behar, zinez posible izan dadin kontzientzien indar bakezkoak, indarkeria gabe. Soluzioa efikazki bilatzetik dispentsatzea ez da etikoa inola ere.

Ez dugu jarraituko. Uste dut, norbaitek ikerketatxo bat xeheki egin nahiko balu, gai polit, interesgarri, une honetan interesgarri baino gehiagoa, herri honetan, hauxe izan litekeela: indargintzaren arazoa Karlos Santamariaren pentsamenduan.

## Eliza eta politika

*La Iglesia hace política*, 1974, biziki interesgarria, liburuxko bat dauka gero Santamariak. Baina orain 1969ko haren "Gaurko gai bat" artikulua *Jakin*-en (34, 1969, 58-60) ikusiko dugu.

Estilo labur oso zuzenean idazten du Santamariak:

"Jesukristo ez zan politikan sartzen. Apolitikoa zan. "Indiferentista" zan, politika sailean.

Horixe esan zaigu amaika bider.

Baina ez da egia".

Teokraziaren analisitik darama bere azalpidea. Hasteko, Errusiari "teokrazia" erizten ausartzen da (garai hartan, ez orain), "nahiz ta Jainko gabeko teokrazia izan". Israel teokrazia bat

zen. Zer esan nahi du horrek? Doktrinalki konfesionala izatea (erlijiosoki, filosofikoki, nolana hiki). Israel bezalako teokrazia estrikto batean, ez da posible disidentzia erlijioso ausartik hartzea, ondorio politiko astunik eragin gabe. Gaurko Errusian ezinezkoa den eran "filosofia, zientzia, kultura edo erlijio sailean postura ausart bat hartzea, politika sailean ondorioak sorterazi gabe". Eta Jesukristo markatzen duena, hain zuzen, bere disidentzia erlijioso erradikala da.

Ez dugu errepikatuko gizarte israeldarraren talde eta klase analisia: saduzeoak, politikoki erromazaleak eta kulturalki filohelenistak; herodetarrek, erlijiosoki funtsean kontserbakoiak, politikoki errealista-posibilistak; zeloteak, "aberatsen eta erromarren etsai amorratuak (...), aberri-zale amorratuak eta iraultza-gileak". Gizarte horretan, erromarrek Israel okupatuta zeukatela, "politika gabeko erlijiozko postura huts bat hartzea ez zan posible".

"Kaiserrari eman Kaiserrarena", etab., argudio klasikoen exegesi berria eskatzen du Santamariak, argi berri batez aztertzeko Jesukristoren ihardun guztia.

"Ez zegoen, ez, estratosferan. Eta horregatik hil zuten.

Jesukristo politikagatik salatua izan zen eta kondenatua (...). Orduko politikariek Jesukristoren hitzak eta obrak zentzu politikoa zutela sobera zekiten. Zeren Jesukristo ez bait zen "neutralistaren" bat, hainbeste bider esan diguten bezala. Politika sailean postura garbi bat hartzen zuen, nahiz ta askok "distinto" ta diferentzia asko sartuz, ezagutu nahi ez izan gure egunetan".

## **Kultura, euskal kultura**

Inpresioa daukat, oraingo gazte-jendeari Ortega y Gasset gutxi gora behera San Isidoro Sevilla-koa bezain urruti gertzen zaiola. Kulturaz *Jakin*-en Santamariak idatzi dituen kolaborantza biak, aldiz, biak eztabaidan Ortega y Gasset-ekin hasten dira. Ohargarria da, zeren eta erakusten bait du, konkistatu egin behar izan dela, gaur egungo euskal kontzientziari egokitzen zitzaion kulturaren kontzeptu propioa.

In "Euskal kulturari buruz" (33, 1968, 31) kulturaren kontzeptu ortegatarrari burgesa erizten zaio. In "Unibertsitateko kulturaz" (1, 1977, 67-70), "guztiz gainditua gaurko egunean".

Ortegak "un sistema de seguridades frente a la vida" deritzo kulturari. "Cultura es aparato de facilidades frente a la existencia".

Bizitza lan gaitza da, burruka zaila, arriskuz betea. Gizonak erraztasuna bilatzen du. (Bizitzaren aurka?). "Frente a las dificultades el hombre inventa instrumentos espirituales y corporales que facilitan su lucha contra aquélla. La suma de estas facilidades que el hombre crea es la cultura".

Hori bada kulturari bilatzen dena, berandu baino lehen ez-paiak nahitaez jo behar dizu euskalduna. Ulertzen da, batzuek euskal kulturaren gorritasunetik "300 millonez" en anparora ihes egitea. Alderdi txiki bateko antsietatik, Alderdi "unibertsal" en bateko deskantsura.

(Taldea ez da artaldea. Guk taldea nahi dugu: txikia, ongi kohesionatua, baina bizia, libre. Taldea artalde, artzainak, artzanorak, hespilek, ardien gidaritzak hierarkizatuak, esplotazioak, esneketak eta gaztak, merkatuak eta larre izpiritualak zein materialak, egiten dute, dakigun bere "segurantzi" sistema osoarekin: Alderdi segurua, Estatua. Kultura "catálogo de actitudes ante la vida" jakin bat baldin bada, oso nekagarria bait da, alde guztietatik haize guztiek atergabe eraso den trintxera batean irautea, ipurdiari beti akomodo bila luebaki tirokatuan).

Kontzeptura itzuliz. Ortega-ri, alde askotatik egongo litza-teke zer ihardoki. Santamariak bere kultura propioan bizi nahi lukeen euskaldunaren ikuspegitik erasiatzen dio: "Nun dauka-gu euskal kulturaren erraztasuna? Nun berak emandako seguran-tza?". Eritzi burges hutsa da Ortegaraena.

Zoritxarrez, kulturaren ikuskera burges hori, darrai Santa-mariak, euskaldunon artean dago inon baino sustraituagoa. "Orain arte, kultura, segurantza-sistema bat bezala begiratu izan da, batez ere euskaldunen artean. Gozo-gozo izateko bidea da kul-tura. Enplegu, kargu ta ogibiderik onenak eskuratzeko bidea da. Kultura da jendeen artean itzala emango dizuna, Beren se-

me-alabek kultura erdietsi dezatela nahi dute guraso gehienek, beraz”.

Horra nola geuk bihurtzen dugun gure kultura “sasi-kultura”. (Eta zer nahi dute etsaiek, horixe baino?). Baina hori, inkultoaren kultur kontzeptua da. Instrumentala, utilitarista. Ortega isladatu duen gizarte burges “filisteo”arena. “Egiazko kultura ez da, Ortega-k dioen bezala, segurantza bide bat, ez-segurantza eta ziurtasun-ezaren kausa baizik. Egiazko kultura duen gizonak, besteek baino korapilotsuagoa ta nahastuagoa du bizia. Besteek beren gezurrezko ‘trankilitatean’ bizi ahalko dute; ez, ordea, kulturaren sasiartearen sartu den gizonak”.

Kultura bizia, kreatiboa, historikoki eragikorra, ez da segurantziazkoa, egonezinezkoa baino. Ez “egien propietariena”, egiaren bilatzaile artegena baino.

“Euskal kultura, erroak aizetara dituan kultura da. Euskal kultura eginkizunekoa da, hau da, dana egiteko duan kultura bat.

Euskal kultura ez da besteak bezalakoa, estal-gabekoa da. Benetako kultura proletarioa. Mespreziatutakoa ta bide guztietan desornitutakoa.

Erderaz, nahiz gazteleraz nahiz prantzesez, esate baterako, idazten hasten danak erraztasunak oro ditu: mota guztietako hiztegiak eta enziklopediak esku eskuan ditu. Klasikoen laguntza beti arkitzen du.

Euskal kulturari ‘sistema de seguridades’ ez, baizikan ‘sistema de inseguridades’ deitu behar diogu.

Eta esaten duguna da euskal kulturaren meriturik handiena, gure egunetan historiaren indarra desornitutako jendeen artean arkitzean dagoelako.

Hontaz Marcuse-kin bat nator. Filisteiko jendearekin ez dugu deus egingo. Hoiek gure kulturari folkloriko jostailuaren balorea besterik ez diote emango.

Ezeztasunarena ta ukatasunarena da jakintzaren ta politikaren oldarra.

Zientzia sailean nundik etorri oi da aurrerapena? Ukatzetik. Geometria ez-euklidianagandik. Fisika ez-newtonianagandik.

Epistemologia ez-kartesianagandik, ta honela.

Gaston Bachelard filosofoak bere "Le nouvel esprit scientifique"n honela adierazten digu. Ukatasunaren ahalmenean ikusten du baliorik handienetako bat.

Hitz baten: euskal kulturak, bere mamian, erreboluziogile izan behar du bortxaz, zeren esistitu nahi badu, aurrean duan errealtatea ukatu egin behar dualako".

Kasu: gaizki ezagutuko genuke maisu razio-vitalista, urduritasun eta protesta alderdi hori ez duela gogoan izan, uste bagenu. Kulturaren beste honelako adierazpenak ez bait zaizkio falta Ortega-ri: "Cultura es labor", "cultura es creación de pasiones nuevas y de ideas nuevas", "cultura es agitar los brazos ante la propia perdición". Santamariak aipatzen ditu horiek ere.

Eta hor ere, alde askotatik legoke zer esan, argi edo ilunbide horiei. Bat, Ortega-ri ia beti esaterik dagoena, kontzeptu rigorosoetatik ihes egiten duela metaforetara, irudizko mintzora, Arrazoipidetik fantasiara. Baina Santamariak, hori dena barkatu eta, berriro lehengo mailu berarekin jotzen du bere kritika: "Arras atzeraturik gelditu dela esan daiteke, haren kontzeptuak, gure gaurko sozial mentalitatetik urruti dagoen intelektual-individualismo batera makurtzen bait dira. Ortega liberal handi bat zen, eta haren pentsaera orduko Espainiako ideologia liberalari loturik zegoen. Pentsaera horren individualismoaz konturatze-ko, nahikoä da aipatu ditugun fraseak berrirakurtzea. Gaurko egunean, ordea, kulturarekiko kontzeptuek sozialak izan behar dute, ala ez dira, izan".

## Euskal Unibertsitateaz

Santamariaren berezkuntza da "Euskal Unibertsitate" eta "Euskal Herriko Unibertsitate"arena (edo "Euskal Herriango" a, garbiago uzteko). Euskal Herriango Unibertsitate bat orain daukaguna da.

Eta positiboa da, ez uste. Oso positiboa da alde praktikotik: "Kultura unibertsala emango dio gure herriari, erdaraz bada

ere. Alde horretatik, guztiz beharrezkoa dugu gaurregun eta —euskara dagoeneko egoeran— luzaro ere ukanen dugu beharrezko”.

Baina “hori Euskal Unibertsitatea ez dela *opportune et importune* esango dut nik, izen-truke horretan arrisku handia ikusten bait dut”.

Helburua Euskal Unibertsitateak izan behar du.

Zer da, baina, Euskal Unibertsitatea? Ezin laburbil nezake artikulua dena noski. Euskal Unibertsitate zinezko batean planteatu eta soluzionatu beharreko auzi bat, kultura “unibertsalaren” eta kultura berezi “partikularren” dialektikarena litzateke. Ez noa auzian luzatzera: terminoak berak desagokiak dira eta, gainera, hemen ez dagokigu Santamariaren *Jakin*-eko artikuluen kontaduria pittin bat erakustea baizik.

(Oraintxe: San Inazio Loiolakoa “un vasco universal” baldin bada, zer arraio ote gara besteok? Historia horrek historia gehiegi du eta, sentsibilitate piska batekin, San Inazioentzat eta denontzat hobe zen, mendeurrenekoa historia horietatik urruti eta garbi ospatu. Jende batek ezin izaten du nonbait ohar-tu, bere mintzairak zenbat insulto implizitu harroputz eramaten duen, berak maite ez duen Euskal Herri xumearentzat. Hori bait da kontua: ez bakarrik, ez maitatu; mesprezu inkontziente bat edukitzen zaio, karitate guztiarekin).

Kultura berezi partikularra ez da kultura unibertsalaren *zati* bat, handiagoa ala txikiagoa. Hain zuzen hortxe dago makurkeria: “handiek” berena “kultura handi” deklaritzen dizute, handia gero unibertsala. Baina “kultura unibertsala eta herri baten kultura bereziaren arteko diferentzia ez datza kantitatean; zerbait esentziala da”.

Harreman dialektiko bat da: kultura guztiak dira unibertsalak eta partikularrak. Edo: guztietan ematen dira unibertsaltasuna eta partikularitasuna, modu desberdinetan. Kultura partikular ez-unibertsalik ez dago; unibertsal ez-partikularrik ez dagoen bezalaxe. (Inork ikusi al du Maitasuna kalean paseatzen? Dau-

den maitasun konkretuak beste maitasunik ez dago, hauek ez dira izaten haren zatiak, kopiak: kurioa da, zein arras platonikoak izaten garen puntu batzuetan).

“Kultura unibertsalak ez du inoiz kultura berezi bat ordainkatuko. Historiaren Erroma ez da sekula erromarrek bizi izan zuten Erroma bera izango. Antropologoek deskribatzen duten kultura papua ez da sekula papua herriak bizi egiten duen kultura bera izango, indijenarentzat kultura hori biziaren muina bait da.

Espainiako intelektual gehienek ez dute honelako berezitasunen beharrik sentitzen —hau da, hain zuzen ere, Ortega y Gasset jaunari gertatzen zitzaiona—; horientzat bi gauzak —kultura unibertsala eta kultura espainola alegia— bat bera dira eta. Horiek, espainolek, ez dute problemarik izaten, kultura unibertsala espainolez ikasten dutenez gero. Baina euskaldun jator batek euskal kultura, euskal literatura, euskal pentsuera, espainolez ikasi behar izatea, *contradictio in terminis* iduritzen zaigu. Honelako gertaera, trajeria kultural bat dela esan daiteke, nahiz eta euskaldun asko hortaz konturatu ez.

Hau da gure diglosia delakoaren egiazko trajeria. Eta gure herria ez da hortik aterako, egiazko euskal unibertsitate bat ukan arte”.

Arazoa Euskal Unibertsitatea genuen hain zuzen. “Irakurle argi eta zorrotzak —idazten du jarraian Santamariak— erraz ulertuko du zein diferentzia handia dagoen, Euskal Herriko unibertsitatea eta euskal unibertsitatea direlakoan artean”. Eta nola *Jakin*-ek irakurle argiak eta zorrotzak dituela ez dugun zalantzarik egiten, horretan utziko dugu hori.

Ohartxoon osagarri, ik.: *La Universidad y La Cultura*, Donostiako EUTGk argitaratu foiletua, Santamariak Euskal Kontseilu Orokorreko Hezkuntz Kontseilari gisa idatzia).

### **Inkontzientearen legera bihurtzen**

Modu bitxi honetan hasten zen behin Santamariaren artikulatu bat: “M.-ren gizartea, alegia, dimentsio bateko gizartea...”

Misteriozko "M" moztu hori Herbert Marcuse zen. Garai batean oso modan egon zen. Orduan, Santamariak, Rikardo Arregik eta hirurok zenbaki monografiko bat prestatu genuen hari buruz. Baina zentsurak Marcuse-ren izena esatea ere debekatu egin zuen. Haren lekua "pentsalaria"z, "gure filosofoa"z eta "M"z bete behar izan zen. Gogoan hartzeko gauzatxoak, antzemateko nolako garaiak ziren.

Birritan gutxienez enplegatu da Santamaria gure aldizkarian Marcuse-rekin. Bietan "dimentsio bakarreko gizona"ren arazoarekin. Aurrenekoaren arloa "historiaren azkena"rena da hain zuzen.

Historia kontzientziaren espazioa da: inkontzientean ez dago historiarik.

Gure artean, askotan, Madrildik errebotean datozenean bakarrik hartzen dute arazoez eta ideiez indarra. Hala dirudi orain "historiaren azkena"rekin ere gertatzen zaigula, posmodernitatean. Baina hori Santamariak orain hogcitabi urte jada planteatu zigun *Jakin-en*.

Bi printzipiok gobernatzen du gure aktibitatea eta existentzia. Bat, Eros-ena, atseginarena hori; eta errealtatearena bestea, zibilizazioarena. Bigarren hau, nolabait esan, kontzientzia historikoarena eta sozialarena da. (Freud-i eta Marcuse-ri jarraiki, instintoen terminotan mintzo bagara ere). Aurrerabide historikorako eta zibilizaziorako, beharrezkoa (omen) da honek gizonaren lehen instintoa bere azpian lotzea eta gogor zapaltzea gatibu. Eros-ek erreprimetua egon behar du zibilizazioan, ordenuan. Bizitzaren instintoaren estekadura horixe besterik ez omen da funtsean zibilizazioa.

Gure bizitza "naturalaren" edo inkontzientecaren sailean, Eros-ena da printzipio bakarra: atsegina eta atsekabea dira inkontzientecaren gidari bakarrak. Libre. Gure zibilizazioko bizierak hura preso lotzen duenean eta berezko garapenik uzten ez dionean, instinto haren indarra beste ubide batzuetatik gainezka bideratzen da, eta horrela sortzen dira zibilizazioan Eros-en sublimazio-formak, hots, artea, erlijioak, zientzia, ohore-grina, heroismoa, etab., politika, historia. Eros-en errepresioak egiten du historia. Betetzen du historia edukinez.



Zer gertatzen da oparotasunaren gizartean orain? Gar erotikoa ez dago txondarpean kontrolatuta eduki beharrik: aitzitik, ageri-agerian libre uzten da. Probetxatu egiten da oparotasun sistemaren zerbitzuan, edertzeko, suspertzeko. Zibilizazio honetan, ez bakarrik oso erraza da hiritar zibilizatuarentzat Eros-en plazer handiak zein txikiak erostea eta gozatzea; baizik eta produkzioak (diseinuak, etab.) zein merkatuak berak, nolabait ukitu erotiko bat eduki behar dute hobeto funtzionatzeko; managerrak gizontsu-sexy izan behar du; andereño idazkariak pertxenta-sexy; iragartzaileak sexy, saltzaileak sexy. Sexua harreman publiko arruntenetan integratu da. Sistemaren etsai gaitibu-beharrezko izatetik, sistemaren aliatu eta parte bilakatu da Eros modernoak.

Baina esan dugu, sistemaren aldakuntzari, kulturaren aurre-rabideari bultz egiten ziona etengabe, Eros-en instinto erreprimitu hori zela, irtenbide bila; zerk eragin behar dio orain aurretantz historiari? Ezerk ez. "Ondorea da historiaren eginkizun eta asmokizun handienak hil zorian daudela".

Hartarainoxe gaude entranpatuak, non, "progresista" batzuk izaten bait dira, amodio librea eta antzekoak esigitzen dituztenak, askatasunaren izenean: plazeraren eta atseginaren printzipioa, ordea, sistemarena bait da gaur egun printzipio nagusia hain zuzen!

Nola irauli sistema? Inola ez. Nora goaz horrela? Inora ez. "Berriz ere inkontzientearen legera bihurtzen da gizartea". Gozamencan gozo-gozo loakartzera. Konformismora. Historigintzari uztera.

(Ez bedi ulertu, aurrerapena bukatu denik edo holako sinplekeriarik. Aurrerapenean ez dela egongo forma "sublimaturik" baino: plazeraren printzipio egoistari obedituko diola denak zibilizazio honetan).

## **Zinismo berri baterantz**

Bi ohartxo.

Bat: agian irakurlea ez dago konforme, analisia egin den terminoekin. Eros-en errepresioarena kontu delikatua da. Ez dio

axola, Santamariak berak azpimarratu zuen, Marcuse-rena gizar-tearen azterketarako "modelo" bat zela. Interpretazio-eskema bat. Segituan ikusiko dugu, beste termino batzuetan ere bazekic-la azterketa hori bera egiten, Marcuse-ri jarraituz gainera.

Bi: "krisi handiaren" sentipena, edo mundu bat bukatu dela azkenbetiko, hainbat eratan eta lekutan aurkitzen da XX. mendean, izugarri interesgarria izango bait litzateke, horren azterketa sistematiko bat. "Historiaren azkenaren" hau ez da adibide bat gehiago besterik (errepikaria eta gero errepikatua, gaur arte, Lyotard, Vattimo eta konpainiarekin).

Eta gure arteko berritasun batzuen zahardadearekin jarraitzeko: "arrazoimen zinikoa" orain haize handian omen datorkigu. Hori ere Santamariak orain hogeitaz urte errebindikatzen zuen. Eta bitxia da. Sofistak errebindikatu nahi izan dituztenak, dozenaka ezagutzen ditut, Savater-engandik hasi eta Hegel-enganaino. Nik uste dut, Hegel-ek nahikoa errebindikatuta utzi zituela. Baina jendeak gusto hartu dio nonbait errebindikazio horri. Zinikoak, ostera, egongo dira, ez omen bait da ezer berri-berririk egoten eguzkiaren azpian, baina nik behintzat ez nuen inor ezagutzen, errebindikatzen zituenik. Salbu, esan bezala, Karlos Santamaria.

Zein sentidutan? Sistemari bere osotasunean uko bakar eta borobila ematearen sentiduan, 68 aldera gazteen, ikasleen, intelektualen artean prezeski agitu den eran. Ez zen izan doktrinaren baten kontraatakea, Tesiren batena. Ez, puntu batzuen aurkakoa. Bizitzaren azkeneko eztanda zen, errebolta, "ezezko handia" guztiari, sistemaren ukoa bere osotasunean. "Paralelismoren bat badago, dudarik gabe —komentatu zuen orduan Santamariak fenomeno hura gure aldizkarian— gaurko protestako ekitearen eta ziniko mugimenduaren artean. Antistenes eta Diojenes-en filosofia errebisatu eta ber-baliarazi beharko litza-ke gizon modernoaren aldetik".

## Historiaren azkena

Halere Santamariak ez zigun esan, neozinismo batean Orreagara itzuli behar genuenik, modernitatearen horda frankoak arroi-

lan (ez dakit hori doi-doi non dagoen han) harrapatu eta harrika lehertzera (zaputz indibidualistara, sasi-naturalismora, etab.). Hori, gertatzen ari zaiguna da apika, modarekin. Ez Santamariak opa ziguna.

Opa ziguna, euskal kulturaren barruan indartzearen, susturriak bilatzearen eta sendotzearen, pertsona betegitearen bide-tik joan zitekeen. Baina gogoratzen ari naizen artikuluoak, analisisian bakarrik saiatu dira: gauden, beraz, horretan.

Gizartea *versus* gizabanakoa. Gizarte teknologikoa (kapitalista nahiz sozialista) gizaseme konkretuaren ukazio bilakatu da. Are, bigarren, gizarte honetan, sistemari muzin egiteko ahalmena bera itzali zaio gizabanako hiritarrari, esan bezala. "Mahatma Gandhi zanak honako hau esan ohi zuen, bere herriaz mintzatzerakoan: 'Nagusikeriari ez esateko indarra galdu dugu' (...). Horixe da gizarte industrializatuenetan gertatzen dana: dimensio bateko gizonak ez esateko kemena galdu du. Galtze hau, ordea, ez da indarka, gogorka, bortxaz eta zigorrez egiten, baizik, atseginez, plazerez eta aietasunez. Teknokrazia, Kalipso ninfaren antzekoa da, eta gaurko gizona beraren sareetan lotuta dagoen Ulises bat". Gizonak bere gatibutzan plazer izatea, lortu du oparotasunezko masa-gizarte teknologikoak.

Nola? Beharrak manipulatu. Gizona, kontzientzian barrena, inkontzienteraino inbadituz.

Gizona beharrez jositako izaki bat da. Behar-sorta bat. Beharren dialektikak eratzen du historia, kultura. Beharrok ez dira fisikoak edo materialak bakarrik. Erantzukizunaren, askatasunaren, ohorearen, partizipazioaren, kulturaren beharrak ditu orobat. Beharrok dira kontraesan eta uko guztien iturburuak. Beharren arteko dialektikan gizatartzen da gizartea, sozializatzen da gizabanakoa. Eta, hain zuzen, "dimensio bateko gizarteak, gizonaren beharrak maneatzeko ditu, bere itxurara eta gisara. Horietako behar batzuk betetzen ditu. Beste batzuk, berriz, baztertu eta ahantzi arazi". Satisfakzio konpentsatorio batzuekin.

Ez dugu betiko errosarioa hasiko: zenbat aietasun eskaintzen digun eskaparetan; aldiz, erantzukizun publiko orotatik

dispentsatuta nola gauzkan, eta erantzukizun beharrik ere nola ez dugun sentitzen, etab. Luzeegi joko luke. Har dezagun askatasuna bakarrik. Askatasunarena gizonaren beharrik tirriatsuenetakoa da. Gizarte modernoak, hortaz, ez du askatasuna ukatu egingo. Arriskutsuegia litzateke. Manipulatu egingo du. Interesatzen ez zaizkion askatasunak ere zintzurretik sarteraziko dizkio. Libre izatera behartu egingo du nolabait, "gezurrezko libertatez" kargatuz: autozentsuratzen den prentsa librez, bost axola diren hauteskunde librez, aldez aurretik kontzertaturiko preziozko merkatu librez, etab., "dimensio bateko gizartean askatasun ideia bera faltsifikaturik egotera, benetakoa zapalke-ta dena jendeak libertatetzat hartzen duelako".

Beharrak, lehenago, beharrak ziren. Eta beharrak problema. Beharrak egonczina, kontraesana, ukazioa eta burruka sortzen zuen. Gizartearen aldakuntza. Egoera problematikoaren gaindipena. Baina orain "mundu onen-onenean bizitzea iduritzen baitzaio gaurko gizonari!". Orain problemarik duena, Don Juan izan, Romeo, Hamlet ala Fausto, ez da burruka eta tragedia baterako asuntua, psikiatrarentzako kasua bakarrik da. Problema orain ez dira gainditzeko, sendatzeko baizik. "Zorionean" atraturik gaude: ez dago ihespiderik.

"Gaurko teknokrazia gizonaren behar guztiak asetzeko eta kontradizino guztiak integartzeko gauza omen da. Hortik dator M.-ren iritziz, dialektikaren akabantza eta Historiaren fina".

(Dena dela, historiak berak baztertu omen gintuen herri eta jendeontzat, "historia" askoz lehenago bukatu zen: guretzat ez dago arazorik).

## **Pertsonaren arazoa: denaren giltza**

Gai oso desberdinak ari garela ukitzen, emango du. Baina badago guztion gako simple bat: pertsonaren arazoa.

Hain zuzen "Marx eta giza pertsonaren problematika" izan dugu *Jakin*-en idatzitako Santamariaren azken artikulua orainarte (30, 1984, 75-90), sei urte duela. Santamariaren pentsa-

menduan betidaniko, hasieratik azkenerainoko, interesen eta kezken erdi-erdiguncan gaude hor. Halere, artikulua, tituluak seinatzen duen erremutxo konkretura mugatzen da: eta gu harekin.

Hamabost orri trinko-trinko eta ongi dokumentatutan, Marx-en eritzia aztertzen du Santamariak pertsonari buruz. Eta, une berean, aburu horri zer deritzoten pertsonalistek, arakatzen du, alde batetik; marxista desberdinek berek deritzotena, bestetik ("humanistek" nahiz Althusser-en gisako "zientifistek", antihumanistek).

Hainbat ohar antropologiko baliagarri egin du Marx-ek (bere obra osoan; ez gazteak bakarrik): izaera sozialaz, kontzientziatziaz, alienazioaz, lanaz eta lanaren bidezko gizagintzaz (gizonaren autokreazioa historian), etab. Baina, azken finean, gizaki kolektiboaren aldean apenas hartu du aintzat gizabanakoa (Santamariak nahi luke piska bat "salbatu" halere: "Nik ez dut uste Marx gehiegikeria horiekin bat etor zitekeenik"); eta, nolana ere, pertsona —zentzu pertsonalistan— ez du tutik ezagutzen. Uler dezagun: pertsona, pertsonalisten kontzeptuan, errealitate trantzendentea da. Logikoa da, Marx-ek ez jakitea zer egin horrelako giza kontzeptu batekin.

Buka dezagun, bukatu baino, arlo berri bat irekiz. Erljio askatasuna, Inperialismoa eta kristautasunaren konpromezu soziala, pobreen eta zapalduen askatasun burruka eta biolentzia, Euskal Herriaren etorkizuna, kulturaren esanahia euskaldunontzat, oparotasun gizarteko inkontzientzia eta lozorroa: kezka guztiok iturburu batera izan dute: pertsonaren ardura.

Karlos Santamaria Euskal Herriaren maisu pertsonalista da: pertsonalismoa, besteren batean sakonkiago barnatu beharrekoa, berak esan digu, "ez da zientzia bat, sistema bat, teoria bat, ideologia bat, baizik sinismen bat, fede bat pertsonaren existentziaren gainean". Gure artean pertsonalismoa funtsezko klabe bat da, nik uste, XX. mendeko historia soziala eta politikoa hein handi batean argitzeko: apez propagandistetatik sindikalismo solidarira, kooperatibismora eta ordu zailenetako politiko demokristau batzuen jarreraraino. Oinarri-oinarrizko giltza, Karlos Santamariaren pentsamendua bere osoan artikulatzeko

genuke batez ere, hor ez dago dudarik batere. Pertsonaren kontzeptua izan da nukleoa Santamariaren kezka teoriko zein praktikoen sare zabalean. Harentzat, berak esan digun bezala: "Pertsonagandik abiatzen bait dira historiaren bide guztiak".

*J. A.*